# JOIE PASTORALA

## 2015/06/13an Izturitzeko plazan




**Idazlea** : Erik Etxart
**Errejenta** : Maël Rivest Lemasson

**Joie, Josep Etxegarai** : Ekain Betbeder Orbezua
**Mari Goienetxe** : Maddi Haiçaguerre
**Joieren ama, Jeanne Lavie** :Anaïs Rivest Lemasson
**Joieren aita, Laurent Etxegarai** :Pettan Strippentoir
**Joieren laguna, Piale Daxarri** :Jokin Salvatella
**Alemanen burua, Eberhard** : Julen Borda
**Alemanak** : Iñaki Thicoipe, Johane Oihenart Etxart, Jokin Etchart, Katixa Ibar Rosas, Gexan Arotçarena
**Frantsesen burua, Dupont** :Jokin Thicoipe
**Frantses eta euskaldunak** : Ttale Lafitte, Saroia Idoate Funosas, Maddi Etchart, Jokin Salvatella, Unai Garra, Ekain Betbeder Orbezua
**Amerikanoen burua, Smith** : Alex Bergara Irazola
**Amerikanoak :** Melina Armendariz, Gabi Etchart, Lili Pescrilli Blandin, Mattin Dirasse, Marie Faxel
**Predikariak** : Joana Houareau, Thibaut Faxel, Irantzu Idoate Funosas, Laida Abadie
**Satanak** :Julie Faxel, Kaiet Arotçarena
**Dantzariak** : Manon Amestoy,Yelana Strippentoir, Ibaia Salvatella, Idoia Aguerre, Maika Haiçaguerre, Elorri Sallagoyty, Loiola Strippentoir, Eneko Etchart, Eneko Durruty, Laurendi eta Iztebe Oihenart-Etxart, Iñaki Recart
**Artzainak** :Thibaut Faxel, Xan Malmose, Estebe Haristoy, Laida Abadie, Aize Dirasse, Luna Pescrilli Blandin, Haizea Abadie, Ekhi Malmose, Maitena Aguerre
**Haurrak** : Paloma Urruty, Aizpea Betbeder Orbezua, Joana Houareau, Nola Maury Floch, Eulali Lafitte, Irantzu Idoate Funosas, Alaia Ibar Rosas, Intza Armendariz
**Teknikariak** :Iban Amestoy, Mendosa Amestoy, Amets Oiharzabal Gomez, Axel Maury Floch, Ximun Sallagoyty

Lehen predikua
Joana eta Thibaut

Egun on jende guzier
egun Joie pastorala
aurkeztuko dautzuegu
lehen gertatu bezala

Josep Etxegarai Joie
Donamartiritarra zen
haren bizia kondatzerat
denal elgarrekin goazen

Ai zer nolako bizia
Joiek pasatu zuena
haren bizia guretzat
ez zen izan hain zuzena

Joie gizon haundi hura
orain ohora dezagun
ea bere bizi hori
untsa kondatzen ahal dugun

## I. jeikaldia

*Joie (panpina) amaren besoetan*

Amak :
Laurent (Loran) hemen di(g)uk orain,

premua dena izanen
har 'ak hire besoetan,

goxa da(d)in lehen bai lehen.

Aitak :
Semea munduratzea,

Joana ez dun izan erretx,
Bainan azkenean jin dun,

egiten nuena amets.

Amak :
Har beza ohantzetako,

Otsozelaiko Haixtoia,
Ukanen dik bizitzeko,

lur hauetan bere doia.

Aitak :
Joana oraintxe gogoan,

dinat gure aita zena,
Haren gisa ukanen din,

semeak Josep izena.

Kantua : Ni sahatsa bezala
Artzainak, haurrak eta Idoia, Julie, Manon, Maika, Iñaki R.

Ni, sahatsa bezala
ludiari ernatu ohi zaion
kimu berri bat naiz
sortzen ta hiltzen etengabe doazen
sentimenduen haizearekin dantzan.

Ni, poz eta minen
zuhaitzetik edanaz
berdetutako igali bat naiz
Hosto bakoitzean. malko bakoitzean
zauri minberetan loratzen dena.

Ni, munduaren grinak
jasotzen dituen
ibai luze ta mugikorra naiz.
Itsaso birjinen arima urdinen
sabel emankorretara doana.

## II. jeikaldia

Joiek :
Iratzeen egitea,

hauxe dugu lan dorpea,

Jes ! zer dut nik ziloka hau,

harripe hontan gordea!

Aitak :
Hi! Zer gertatu zauk Ioie ?

Urrunt hadi poxino bat!
Ez hadin eror gaizoa,

leize lazgarri hortarat.

Joiek :
Harri bat aurtikiko dut,

ziloaren ikertzeko,...*(etena luza)*
Berrogoita hamar metro,

soka behar dut jausteko!

*Ateratzen dira eta berriz sartzen...amarekin*

Amak :
Zilo hortarat jaustea,

lanjerosegia baita,
Joie! Jinkoagatik otoi,

har 'ak laguntako aita.

Joiek :
Aita jautsi nuzu orain

zilo honen zolaraino,
Hain gauza_ederrik ez dizut,

nik ikusi egundaino!

Aitak :
Haugi goiti berriz Joie,

kondatzerat ikusia,
hire irria ikusiz

ez dukek ez itsusia!

Joiek :
Argitzen dizie harri,

gorri, zilar 'ta horiek,
Arraikusi behar ' tizut,

harri pareta horiek!

*Satanak :*

**SU Norat duk holako presa**
**Zer nolako jendetza**

KE Harperat jautsi nahi zuen
Kokatu zerria hemen

**SU Ezin baitzen ateratu**
**Garabia zuten deitu**

KE Bizpahiru egunera
Gizon gizena lurpera

Dantza : Gabota

**III. Jeikaldia**

*Izturitzeko bestetan...*

Joiek :
Atsalde on Anderea,
badixut nik esperantza,
elgarrekilan emanen
dugula bi-hiru dantza

Marik :
Mari deitzen nuk eta hi ?
Eskaintza onartzen diat,
Goazen laster dantzatzerat,
baitira sei et'erdiak.

Joiek
Joie nun 'ta zazpietan
anjelusa diun laster
ezkontza aipa dezagun
'ta ezkotixa utz bazter

Marik
Nik ere senditu baitut
bihotzean sortzen garra
izanen hiz guti barne
igurikatu senarra.

Dantza : Ezkotixa

**IV. jeikaldia**

Marik
Eztei ederrak ukanik
iragan zen uztailean
Ioie larrazkena gabe
haurra diat sabelean.

Joiek
Hauxe dugu berri ona,
aita izanen nizala,
Zoriontsu senditzen nun
zeruan banintz bezela

*Zeinuak...*

Joiek
Ai zer dira zeinu hoiek ?
Bihotza laztu zaut seko,
deia dugu gizon gaztek,
gerla iterat joaiteko

Marik
Gutien uste denean,
joiten baitu zorigaitzak,
Habil jitekotan laster,
eta gogoan har gitzak!

*Besarkada...*

Kantuak : Lo hadi aingüria
Maddi, haurrak eta Ibaia, Yelana, Iztebe, Laurendi, Pettan Julie

Lo hadi aingerua, amaren altzoan,
Hire herri ederra botz ezpain-xokoan;
Axolbian gituk, bena ni trixtura gogoan:
Aro gaitza duk kanpoan eta aita gerlan.

Beha zak, haize beltza mehatxuka ari,
Zer gaualdi luzea, zoin den etsigarri;
Harriturik ikaran niz lotu kurutzeari,
Otoitzez Jinkoari egin dezan argi.

eta Lore sortu orduko
Ekain,  artzainak, Ibaia, Iztebe

Hogeigarren urtera ari naiz hurbiltzen...
Eta nere oinetan tomba dut ikusten
Ni zertako mundura etorria nintzen?
Ondikoz ez sortzea neretzat hobe zen.

Sekulan zoriona zer den jakin gabe,
Ainitz dut nik lurrean izan atsegabe
Lore sortu orduko histu baten pare,
Biziaren uztera guti naiz herabe.

**V. jeikaldia**

Joanak :
Zer dun errena nigarrez,
holako itxurarekin ?
Hire entzuteko prest nun,
Mari behar huke jakin !

Marik :
Uste dizut joan zaidala,
barnean neraman haurra,
Eta Joie urrun gerlan
nola bihotza ez urra !

Dantza : gudu dantza

**VI. jeikaldia**

Eberhardek
Gora Hitler eta gora
halaber gure arraza !
Frantses guziak ditela
gure zangopetik pasa !

Dupontek
Gora Frantzia haundia,
libertatearen ikur,
Zizpak altxa ditzagula,
ez gira nehoren beldur !

*Borrokatzen dira,  Joie eta Piale Daxarri preso joaiten dituzte.*

Kantua : Ama
Artzainak eta Ibaia, Idoia, Yelana, Iztebe

Maitatua sobera, nintzelarik haurra,
Ez nakien nik zer zen amaren beharra;
Bortu batean orai naiz bakar bakarra,
Amaz oroit orduko heldu zaut nigarra!

Hegalñoak azkartzen sendituz geroztik,
Baitoazi xoriak ohantze gozotik;
Halaber joan ninduzun amaren altzotik
Ahantzia bainute herrian engoitik!

Aho batek eztiki diolarik : Ama!
Hitz goxo bakar horrek mundu bat derama.
Ama baino hoberik zer ditake asma
Horren maitatzen beraz gaiten oro tema!

## VII. Jeikaldia

*Mari agertzen Joanarekin, gutun bat eskutan...*

Marik :
Jin zautazu orain orain,
letra Alemaniatik,
kontent nuzu gure Ioie,
bizi dugula baitakit.

Marik *(letra irakurriz):*
Ontsa nun, ez arrengura,
besarkada bat amari,
Gainera enekilan dun,
hemen Piale Daxarri.

Joanak :
Zinez kontent nun ni ere,
ez baita lubakietan,

*Norbait atean joka...*

Baina xo norbait badi(g)un,
gure (e)zkaratzeko bortan

Eberhardek :

Joieren berri badugu,

soldadu lagunenganik

Laster sartuko zaizue,

aste zonbait han emanik.

Marik :

Eman berri gehiago,

Joie zauriturik dea ?

Egia aitor 'zazue,

badugu eskubidea !

Eberhardek :

Goxa hadi berehala,

ontsa dun hire senarra,

Moleta bat jan giniron,

horretan ezar indarra.

Eberhardek :

Harpe(e)tako gauza zonbait,

Mari bahu guretako,

lagunt lezaken poxi bat,

Joie laster itzultzeko.

*Alemanek errinozeru burua eramaiten dute...*

*Satanak :*

KE Eberhard ustelak zer du
Etxe huntatik kargatu?

**SU Errinozero buru, txirula**
**Zernahi untzieria**

KE Ioie laster libre zela
Hitzeman omen du hola

**SU Alemaner ezin fida**
**Izorratu du segur da!**

## VIII. Jeikaldia

*Sartzen dira amerikanoak eta alemanak haien presoekin...*

Eberhardek :

Gordezka sartu zirezte,

Europako lurretara,

Lekuak huts itzazue,

zuen etxera fitekara !

Smithek :

Badakizu fini dela,

ageri da zure soan,

Europa askatuko da,

gure azken erasoan

*Bonbardaketak entzuten dira*
*Joie eta beste 2 erortzen dira hilak*

*Satanak :*

**SU Daxarrik zakon kondatu**
**bonbek zutela harrapatu**

KE Batak bestea segika
hilen kutxak trumilka

**SU Gerla antxu finitua**
**yankee-ek izorratua**

KE Untsa zuten lagundua
alemanen parekua

**IX. jeikaldia**

Pialek :

Heldu niz Alemaniatik,
berri txarrekin ondikotz,
zuen senar 'ta semea,
hantxe pausatu delakotz.

Joanak :

Hauxe dugu zorigaitza,
semea hain urrun hila ,
nehoiz ez da hain beltz izan,
primaderan apirila,

Marik :

Senarra noiz itzuliko,
hainbeste beha egonik,
orain Haxtoian bakarrik,
zer egin beharko dut nik !

Pialek :

Mari ai gerlaren gerlaz,
miliunka jende hilik !
Jarriki behar bizitzen,
hale' gaudenek bizirik !

Azken predikua
Irantzu eta laida

Joie pastorala zen hau
zonbait bertsotan emana
arbasoek bizi izana
orain denek dakiguna.

Joie hil zen gerlan eta
Mari gaixoak sufritu
hauen gisa ainitz ziren
gerlak zituenak suntsitu.

Historia ezaguturik
denek asko ikasirik
geroan ez da gertatuko
berriz hemen holakorik !

Milesker jende guzier
goxoki gira zuekin
orain aperitifarat
goazen denak elgarrekin !

Kantua : Gerlarik ez !
Denek

**Gerlarik ez, gerlarik ez, gerlarik ez**
**ez, ez, ez**
**bainan utzi guri**
**utzi herriari bakean bizitzea**
**bakean bizitzen nahi duen bidean.**

Bakezale zuzenak gira gerlaren gudari
bainan ez esklabo bakea, bainan ez hilen bakea
bainan ez itsuen bakea, bai gure bakea.

**Gerlarik ez...**

Manatzaile arotza dugu etxean nagusi
ebasten dauzkigu etxeak, ebasten dauzkigu lurrak
ebasten dauzkigu mendiak, bai ta itsasoak.

**Gerlarik ez...**

Herensuge baten ahoan, haginen artean
lehertzen daukute burua, lehertzen daukute haurra
lehertzen daukute bihotza, bai gure bizia.

**Gerlarik ez...**

Gerlarik ez Euskal herrian, gure nahian
kanporat baliatzileak, kanporat trahidoreak
kanporat gure hiltzaileak, utzi gu bakean.

**Gerlarik ez...**

ESKERRAK

**Lagundu gaituzuen guzieri :**

Arberoa txarangari
Johan Maury aldamu muntatzaileari
Battitt Halzuet satanaren egiten lagundu gaituenari
Marie eta Pantxix Bidart kantarieri
Amadeo dantza irakasleari
Erik Etxarti bertsoak idatzirik
Xan Alkhat bertsolariari
jostun taldeari !!!

# Ondoko orrialdetan, zonbeit dokumentu...

ANNÉE 1939 Commune d'Isturits

Numéro 1

**MARIAGE**

Du dix neuf Juillet mil neuf cent trente neuf

ENTRE: Etchegaray Joseph

Né le 1V Décembre 1906, à Saint Martin d'Arberoue

arrondissement de Bayonne

département de Basses Pyrénées

profession de Meunier

domicilié à Saint Martin d'Arberoue

Fils de Etchegaray Laurent

et de Laur Jeanne } mariés

Veuf de

ET Gaffenetche Marie

Née le 1 Septembre 1917, à Isturits

arrondissement de Bayonne

département de Basses Pyrénées

profession de Ménagère

domiciliée à Isturits

Fille de Gaffenetche Jean Baptiste

et de Bellegarry Marie } mariés

Veuve de

Contrat de mariage Néant

Timbre et Signature,

Délivré le 19 Juillet 1939

L'Officier de l'état-civil,

Mendiboure



SOUVENEZ-VOUS DANS VOS PRIÈRES

DE

**Joseph ETCHEGARAY**

**Prisonnier de Guerre**

*mort en captivité à Gremswal (Allemagne)*

*le 27 Avril 1945 à l'âge de 38 ans*

Il a aimé son pays jusqu'à la mort unissant Dieu et la France, dans son amour, son dévouement et son martyre. Vie de J. d'Arc

J'ai passé des mois bien tristes, des nuits pleines d'angoisses, mais consolez vous avec moi, ô vous tous qui m'avez été chers, je quitte un monde de misères pour une éternité de paix. Ste-Cath.-de-Sienne

Daignez Seigneur, ne pas séparer dans le Ciel ceux que vous avez si étroitement unis sur la terre. Fénelon.

Jésus, Marie, Joseph. (7 ans, 7 quar.)

PRADIER-BAYONNE

## ÉPOUX

*Nom :* Etchégaray

*prénoms :* Joseph

*décédé le* 27 avril 1945 (en captivité) guerre 39-45

*à* Greifswalt (Allemagne)

L'Officier de l'état-civil,

Timbre et Signature

---

*Nom :*

*prénoms :*

*décédée le*

*à* N°

L'Officier de l'état-civil,

Timbre et Signature



*Mari Goihenetxe Izturitze Ahameniakoa*
*2013/06/ 06 an zendua*

**Jakintza**
**Joseph dit Yoyé Etchegaray**

On voit à plusieurs reprises apparaître le nom de Yoyé. En tant qu' »inventeur » de la grotte de Saint Martin d'Arberoue, il est incontournable. Membre d'une nombreuse fratrie, il habitait dans le moulin de Hastoya, au pied de la falaise où il découvrit l'étroite entrée de sa grotte.
Tout le massif calcaire est truffé de galeries. Il y en a du massif d'Eltzarruze jusqu'à la carrière en exploitation. Michel Lauga qui fut instituteur à Saint Martin et grand spécialiste des grottes, nous disait que dans la colline Gaztelu, qui abrite les grottes visitées, il y avait plusieurs entrées, parfois cachées et de multiples galeries inexplorées.
La découverte
Elle concerne surtout la grotte dite de Saint Martin, celle d'Isturitz avec l'entrée près de la résurgence d'Aldabidia était connue depuis longtemps puisque Napoléon III la visita en 1867 et que l'on y exploitait le guano fin XIXe.
Point de lapin ou de renard s'enfuyant dans un trou. Simplement Joseph Etchegaray, connu sous le diminutif de Yoyé, coupait de la fougère, juste au dessus de son moulin. Selon des témoins, la broussaille rocailleuse d'aujourd'hui était une fougeraie, maigre peut-être mais fauchée tous les ans, la fougère descendue suivant la pente sur des branches, comme Lajournade à Etltzarruze. Sous sa faux, un caillou s'effondra et disparut laissant béer un trou dans le sol. Selon le réflexe de tout Basque découvrant un leize (gouffre), il lança un caillou pour apprécier la profondeur. « Pum, pum, pum... ». Cela semblait être très profond. Un autre caillou. Même réponse.50 m au moins.
En cette circonstance, il était normal d'avoir peur, on craignait ce monde de ténèbres, pays des morts, et puis il y avait peut-être des bêtes inconnues. Et puis encore, à force de raconter que les laminak vivaient là-dedans, on voyait resurgir des peurs ancestrales.
Yoyé qui ne devait pas avoir froid aux yeux descendit annoncer la nouvelle. Et malgré sa mère qui criait de peur de le voir disparaître, il embarqua son père, des cordes, des bougies... et escalada la paroi. Bien encordé il se laissa descendre bien de 30 m le long d'un éboulis. Il fit un peu de lumière et toutes les parois se mirent à scintiller comme dans un conte des milles nuits. Mais tout ce dédale dans le noir était compliqué. On raconte que Yoyé, un épi de maïs dans la main, semait des grains pour retrouver le chemin du retour.
Comme il ressortit vivant et délirant d'enthousiasme, les candidats se firent plus nombreux au fil des semaines. Deux dames de plus de 80 ans, nous ont raconté s'être laissées glisser le long d'un éboulis, avoir été « cueillies » dans le noir dans des bras et avoir admiré ce scintillement des parois. On raconte qu'un habitant d'Isturitz, assez gros, resta un moment coincé dans l'orifice. Il fallut pousser, tirer, il fut extrait au bord de l'apoplexie. Quelques jours plus tard il succombait à une crise cardiaque. Coïncidence, peut-être mais le doute a longtemps fait frissonner les acteurs de moment.
Au delà de la grotte, de ses concrétions, de ses gravures et gisement divers, Yoyé trouva des poteries : un gobelet campiforme avec trois point rouges et deux vases carénés dont un décoré d'un cordon digité (avec traces de doigts). Ce trésor inestimable pour la science a été « récupéré » par les Allemands durant la guerre.
Cela aurait dû lui suffire pour entrer dans la postérité, malheureusement il fut aussi l'acteur d'une tragédie. Il était revenu après pratiquement deux ans de service militaire et avait repris ses tournées de meunier. Il fit connaissance d'une jeune fille de la maison Ahamenia et se maria tout naturellement. Le 24 juillet

1939. La lune de miel fut de courte durée. En effet le 1er septembre, il était mobilisé pour aller à la guerre. Cantonné prés de paris, il fit deux visites éclair à l'occasion de deux permissions. Il fut prisonnier au mois de mars et amené en Prusse Orientale.
Il travailla au début dans une carrière avec les souffrances habituelles : fatigue, faim, froid, maltraitance... Il fut rapidement transféré dans une ferme où les conditions furent un peu meilleures, on mangeait, kartoffeln tous les jours, mais au moins, on avait le ventre plein.
Son épouse nous a raconté comment elle a enduré cette longue absence de 5 ans. Au début, la famille est restée 6 mois sans nouvelles, Yoyé était-il mort ou vivant ? Puis arrivèrent les lettres, de simples feuilles pliées et collées, où il ne racontait que le minimum qui pouvait passer à la censure, mais on devinait qu'il y avaient beaucoup de souffrances tues derrière.
Son épouse envoyait des colis (qui miraculeusement arrivaient) : du fromage, de la charcuterie, des chaussettes, cache-nez et des pelotes de laine. Yoyé ne tricotait pas mais ces pelotes permettaient de cacher des lettres. L'attente au moulin était insupportable : helduden hilabetean, eguberriko, pazkoko le mois prochain, à Noël, à Pâques, on se fixait des échéances où on espérait voir déboucher Yoyé au bout du chemin. D'autant que dans le même temps, les Allemands imposaient leur présence en venant se cuire des omelettes et du jambon dans la cuisine même de la mère et de l'épouse.
Ce fut l'aviation qui mit un terme à cette attente. Yoyé fut pris en avril 1945, dans le bombardement de la ville de Reichwald près de Dresde. Il était sur le chemin du retour.
Un copain d'Isturitz, Dachary, embarqué au titre du STO, témoigne avoir vu sur place le cercueil marqué Joseph Etchegaray.

*Donamartiriko elizako kalostrapeko oroit harria*

